



LANDETXO GOIKOA

Lau mendeko historia
eta tradizioa



Landetxo familiak Euskal Herriko lehenengotariko baserria eraiki zuen 1510. urte inguruan, hiru mende lehenegotik bizi ziren lekuan bertan.


Lau mende igaro ostean, 1999an, Mungiako Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak baserriaren berreraikuntza lanei ekin zieten eta aditu talde bati eman zioten berreraikitze-proiektu horren ardura. Orduan, baserria erabat desmuntatzea, deseraikitzea erabaki zen; eta deseraikitze lan horretan agertu zen jatorrizko Landetxo, eraikin bikaina eta konplexutasun tekniko handikoa.

Egurrezko piezak ordenan jarri, banan-banan konpondu eta falta zirenen ordezkoeak egin ziren; habe eta zutabe paregabe haiek eta oholek aztarnak, seinaleak eta artekak zeuzkaten, eta horiek jatorrizko etxearen gaineko berri zehatza ematen zuten.

BASERRI MAGIKOA. Azalduetzina eta magikoa, eguneroko bizitzaren parte



Eguzki-lorearen atarian, elai-habiak atarian, sua eta ikatza sukaldean, igitaia, aizkora, ferra, ... funtzio magiko eta sinbolikodun elementuak dira. Landetxo Goikoan dagoan erakusketa honek baserriaren eguneroko objektuen inguruko sineskerak ezagutzeko aukera emango digu.



Baserria bizitzeko barik ekoizteko dago pentsatuta batez ere.

Suteetatik babesteko hormak banatu egiten ditu animaliak eta gizakiak. Baserriaren lantzar eta soroak ibaiaren uren eragin kaltegarrietatik seguru daude. Garautegia funtsezkoa da, aleak eta fruituak gordetzeko sortua. Suteak eta tximiniak berak ere funtzio praktikoa dute.

Etxeko bizitza suaren inguruan antolatzen zen. Etxe horrek agerian uzten du etxejaunen estatus berria.

Galeriak eta leihoek funtzio praktikoa dute eta, horrez gain, Landetxoko Otxoaren maila adierazten dute. Sukaldea bera ere aberastasuna erakusteko gogo horren adibide da.



LANDETZO GOIKOA

Lau mendeko historia eta tradizioa



HARITZAREN ARKITEKTURA. XVI. mendea

Landetxo Goikoan teknika arkitektoniko landuak erabili ziren, seguru aski Europako erdialdetik inportatuak. Sasoia eta lekua kontuan izanda, oso teknika aurreratuak direla esan behar da.

Haritz-egurrean oinarritutako

arkitektura da hau; pieza guztiak daude bata bestearekin ondo ezkondua, aldez aurretik diseinaturiko puzzle bat balitz bezala.

Bisita gidatuan, bideo batek eta 3 dimentsioko infografiak eraikitze-lan horren edertasuna erakusten dute, baita baserriaren berreraikitze

landua ere; alez-ale egindakoa, 500 urte lehenago eraiki zutenean egin zuten bezala.

Landetxorekin baserria asmatu zuten, hau da, Euskal Etxea, aurretik eredurik izan gabe. Handik aurrera imitatua izan den herri-arkitekturari ireki zizkioten ateak.



NEKAZARI ETA HIDALGO BATEN ETXEA

XV. mendearen amaiera aldera amaitu ziren Euskal Herrian leinuen arteko borroka eta gatazkak; beraz, ez zituztenez suntsituko, luzaroan irauteko eraikinak egiten hasi ziren Landetxo inguruan.

Baserritarra zen, baina handigurakoa, "hidalgo" izan nahi zuen, jauntxoen maila bereko estatusa nahi zuen. 1516an, Gernikako arbolaren azpian, Mungiako

baserritarren ordezkari moduan agertu zen. Sasoi hartan etxeak abizena ematen zenez, Landetxo eraiki zuen, Bizkaiko eta kanpoko beste noble eta jauntxo batzuen aurrean bere estatusa erakusteko, bere nobleziaren seinale. Ordura arte European inoiz ikusi gabekoa.

BISITA GIDATUAK ETA DIDAKTIKOAK

Bisitak gida batek lagunduta egingo dira.

ORDUTEGIA

Erreserba egin behar da aurretik

Astelehenetik igandera

- 10:00-14:00
- 16:00-20:00

PRECIO

- 9 € / pertsona. Gutxienez 12 laguneko taldea.
- 7€ / pertsona. Gutxienez 20 laguneko taldea.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

Tel: 946740061
olentzero@izenaduba.com